

**EUSKADI KOMENIO
NEGOZIAKETARAKO
MARKO BEREZIA**



Azken urteetan zehar, diktadura faszistaren aurka borrokatu beharra izan de-
nean, Hego Euskadiko Lau probintzietariko bat borrokan edo erasoaldiaren bat ja-
saiten zegoenean, bere ondotik aritu dira mobilizazio bidez Euskadiko Langile guz-
tiak.

Hauk ez dira hitz hutsak. Begira dezagun une batez atzera eta Gasteizko erahil-
keten aurrean Hego Euskadiko lau probintziek erantzun zuten mobilizazio handien
bidez; Zabalaren heriotzeak, Hondarrabian, erantzun berdina ukan zuen, eta Germa-
nen hilketaren eta Iruinea osoak azken San Ferminetan jasan zuen erasoaldiaren on-
dotik euskal lau probintziak bat eginik agertu zitzaizkigun.

Inork uka ezinezko gertakizun bat da hau; urte guzti hauetan zehar Euskadiko
Langileek beren eskubide eta errebindikapenak lortu eta defendatzeko Euskadiko
marko nazionala erabili dute elkarlekutzat.

Zer ote da honen atzetik duguna? Kasualitate bat da, agian? Beste Herrietako
langileekiko solidaritatearik eza, beharbada?

Gure ustez fenomeno horrek esplikazio errexu du. Langileok badakigu, geure
esperientziak ondotoxo jakin ere, gure armarik hoberena batasuna dela, bainan egiaz-
ko batasun bat. Ezer gutxi balio digu munduko langileen batasunaz hitzegiteak gero
batasun hori borroka konkretuetan nabahitzen ez bada, bakarrik eta laguntzarik
gabe aurkitzen bagara. Eta azken urte hauetan zehar, nahiz eta espainol Estatuko
eta Europako langileekiko solidaritate une garrantzitsuak izan, batasunerako
egiazko markoa, mobilizapenerako eta borrokarako markoa Euskadikoa izan da.
Izan ere *Euskadin Langile borroka dinamika berezi eta bere bat ditu, ezagugarri
eta ritmo bereziak, hote, Euskadi klase borrokarako marko autonomo bat da.*

Errealitate hau, dudarik ez, ez dute denek onartzen eta langile mugimenduko
sektore garrantzitsu batzuk (UGT, CCOO, etab.) fenomeno hau ukatzen ahalegin-
tzen dira, horretarako langileen marko natural eta egokiena esatala dela esanaz. Eta
sentidu horretan edonolako borroka erreibindikatorarako eta konkretuki, kome-
nioen negoziaketarako, marko estatala inposatzen saiatzen zaizkigu. Hel dagoki-
gun arazo honi.

NEGOZIAKETA ESTATU MAILAN ALA EUSKADI MAILAN?

Komenioak estatu mailan egin behar direla planteiatzen dutenek zera diote:
langileok kapitalismoak duen borroka markoa ukan behar dugula eta kapitalismoak
estatu markoa badu, langileak beren borrokan marko honi egokitu behar zaizkiola.

Bestalde langileen indarra batasunean eta solidaritatean dagoela azpimarratzen
dute, zenbat eta handiagoa izan hau are eta hobeago langileentzat. Negoziaketa Eus-
kadiko nazional mailan planteiatzea beste herrietako langileekiko ez solidaritate bat
dela diote, egoismo bat.

Laburki, hauk dira negoziaketa estatu markoan egitearen alde gehienbat erabil-

tzen diren argudioak. Euskadiko naizonal mailako nagoziaketan aldeko argudioak agertu aurrez, esenplu bat jarri nahi genuke, gure posizionamendua nolabait laburtzen duen gertakizun erreal bat.

Amnistiaren aldeko borroka ari gara; azken urte hauetan zehar, eta batez ere 74ko Abenduaren egunetik abiatuaz, Euskadi preso guztien askatasunaren alde mobilizatu zen. Mobilizapen helburu erdietsi ziren: bata, Estatuko beste Herriei borrokara sartzeko bultzada bat ematea eta, bestea, garrantzitsuena, preso politikoen askatasuna.

Zer gertatuko zen Euskadik Amnistiaren alde borrokatu ordez, "Hau estatu mailako arazo bat denez gero espero dezagun kondizioak sortu artean zeren eta horrela gehiago izango gara eta indar gehiago ukanen dugu" planteiatu balu? Garbi dago gertatuko zena: oraindik mobilizapenerako momentuaren zai egongo ginen eta, dudarik ez, presoek kartzelak betetzen jarraituko zuten.

Bestalde, mobilizatzeak beste Herriekiko ezsolidarizatzea suposatu al zuen? Alderantziz, guk eman genuen lehen kolpe horrek, etxolak hauesteari ekite horrek, beste Herriek borrokari modu ausartago batez heltzea erakarri zuen.

Hauxe da Euskadi mailan negoziaketak egitearen aldeko proposamenduaren izateko arrazoia, filosofia eta izpiritua.

Egun, Euskadin Estatuan ez dagoen borrokalaritasun maila dago, eta oraingoz, Estatuko beste langileekiko solidaritaterik hoberena Euskadin paronalaren asmoak etentzea da, Euskadin soldata topeak hankaz gora botatzea, Euskadin "plantilla" laburtzen aurka borrokatzea. Euskadiko langileok patronalaren asmoak gera erazten baditugu, bere projektuetan zirriztu bat irikitzea lortzen badugu, beste Herrietako langileei laguntza eta bultzada handia emango diegu.

Bainan gure borroka gera eraztea, berau estatu mailako dinamikaren azpian eza-riaz, hori bai dela langileak saltzea, traizionatzea.

Gauzak garbi gera bitez. Guk geu ere borroken hedadura ahalik eta handienaren alde gaude, eta horrela, Michelingo borroken aurrean, edo oraingo Itsas sektorearen aurrean, etab., koordinaketa moduak planteiatzerakoan lenenengoak izan gara.

Guretzat askoz hobea litzateke borroka ez estatu mailakoak, baizik europar edo mundu mailakoak izatea. Bainan hau ez da posible, zeren eta nahiz eta langile guztiek multinazionalen esplotazioa jasan, langileen egoera eta arazo konkrituak oso desberdinak baitira. Sentidu horretan, langile alemanen eta turkoen egoera desberdina da; izan ere mundu edo europar mailan egunak planteiatu arren, laguntzarik handiena bilatu arren, langile turkoek borroka dinamika bat daramate eta alemanak beste bar zeharo desberdina. Distantziak salbu espainol Estatuan gertatzen dena horixe da.

Ez da bidezkoa beraz kapitalismoaren markoaren arauera ihardun behar dela esatea, *langileoi hobetoena dagokigun markoa erabili behar da*, eta hori frogatzeko ez horrenbeste argudioak erabili, baizik errealitate azter dezagun. Komenio bat estatu mailan negoziatzen den bakoitzean negoziaketa langileen esku ez da egoten, ia inork ez du deus jakitzen eta lortzen diren hobeagotzeak beste sektoreek probintzi mailan erdiesten dituztenak baino ttipiagoak izan ohi dira. Errealitatea hauxe da, zeren eta borroka estatu mailan planteatzeak, atzeratuen dauden sektoreek borrokarienen borroka gera erazten dutelarik, patronalak non jokatu handia izaten baitu.

Gainera Euskadi mailan negoziaketak komenio probintzialak berdintze lana errezten du. Komenio hauk estatu mailara igortzea epe-erdira begira ezinezkoa da.

Bainan arazoa hain garbi egonik zergatik zenbait sektorek (UGT, CCOO, etab.) estatu markoa defendatzen dute? Batez ere bi arrazoi dira horretara bultzatzen dituztenak. Era horretan jokatuaz euskal sindikalgintza marjinaetzen dute. Euskadin ehundik 40 baino ordezkari gehiago enpresentatzen ditugun euskal sindikalistok (ELA eta LAB), Madrilen itxurarik gabeko portzentaia bat izango ginateke eta erabakiak hartzerakoan ez genuke inolako indarririk izango.

Negoziaketa markoa dela ta euskal langileen arteko sektore garratzitsuen eritzi eta jokabideak arbuiatu eta ito nahi dira. Beste arrazioa berriz, zera da: langileen kontrolrik ez ukaitean zentral hauei bidea irikitzen zaie bere baldintzak inposatzeko eta inolako beldurrik gabe paktatzeko.

Lan honetan zentral hauk ez daude bakarrik, kontsentsoko Alderdien laguntza dute. Azken hauk konstituzioan langile munduari dagokion arazo oro estatu konpetentziako zat ematea lortu dute, posible diren autonomia guztiak kontenidu aldetik ahulduaz.

Gai honetaz gehiago ihardun gindezke, bainan arazo garrantzitsuenak esanak ditugunez utz dezagun bere horretan.

Ez genuke amaitu nahi ordea honoko hauxe esan gabe: Euskadiko arazoak Euskadiko langileok defendatu eta aurrera atera behar ditugula pentsatzen dugun guztiok, geroz eta gehiago eta herstuago elkar gaitzela komenioak Euskadi mailan defendatzeko.

Donostian, 1.978.engo Hazilaren 4.an